

EITBk web orri bat sortu dio EKT ikastaroari bere webgunean

2011/01/21

Ikasturte honetan ere Euskadi Irratia jarraipen estua egiten ari zaio Euskal Kulturgintzaren Transmisioa aditu tituluari, orain bi urte egin zuen moduan. Oraingoan, Joanes Imaz kazetaria ari da parte hartzen graduondoan, eta bertako saioetan oinarrituta, irratsaio bereziak prestatzen ari da Jakin minez irratsaiorako. Saioak asteartero izaten dira arratsaldeko 21:30ean, Julian Beloki kazetariak aurkeztuta. Errepikapena, aldiz, igande gauetan, 22:30ean. Berritasuna izan da orri bat eskaintzea EKT izenarekin, eitb.com webgunearen barruan. Erabaki horretan zerikusi handia izan du **Arantxa Kalzada** Euskadi Irratiko Programa buruak.



Berez, Jakin minez irratsaioa Euskadi Irratiaren ahalegina da unibertsitatea irratiara gerturatzeko. Bertan, unibertsitatei buruzko informazioa ematen da, ikasketa berrienak non dauden esaten da, ikasleei eta tesigileei ematen zaie hitza, eta atzerriko unibertsitateen eskaintza ematen da jakitera.

Ikasleak, oso pozik

EKT irratsaioak hiru ikasle elkarrizketatu ditu Gabonak osteko lehen irratsaioan. **Erika Lagoma** lesakarra (Bertsozale Elkartea), **Manuel Moreno** ermuarra (Topagunea, Euskara Elkarleen Federazioa) eta **Eneko Barberena** arrasatearra (Txatxilipurdi Elkartea). Hauen iritziz, "lujo bat da" asteazkenetan ohiko lana utzi eta Eskoriatzara etortzea euskal kulturgintzaren transmisioaz aritzeko. Nota jarri behar-eta, **8,5 - 9 jarri diote ikastaroari**.



Nahi izate aldera, hementxe entzun dezakezue elkarrizketa, klik eginda beheko playerrean.